

KONTROL MOZIOA

Kaiko etxebizitzetan zuntz optikoa ez sartzeari buruzkoa

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga EH Bildu udal taldeko zinegotziak Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko abenduaren 11ko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Kaiko bizilagunek administrazio ezberdinen aurrean duten babesgabetasuna gai errepikakorra izan da azken urteotan. Baina, arazoa, konpontze bidean egotetik urruti, okertzen ari dela esan daiteke. 2023ko urriaren 18an, zuntz optikoari buruzko albiste batean, honela irakurtzen genuen:

“471 viviendas en San Sebastián se quedan indefinidamente sin cobertura de fibra al resultar imposible llevar hasta ellas la red de fibra”.

“El Ayuntamiento ha pagado las canalizaciones en buena parte del casco antiguo para desbloquear la situación (...) Sin embargo, hay una zona donde el Ayuntamiento no dispone de canalizaciones y por tanto las operadoras no podrán llegar. Se trata de la Zona Puerto, cuyos residentes pasarán a depender de la red móvil. En total 471 accesos se harán mediante radio, teniendo que instalar una caja de voz 4G o un router FWA 4G, dependiendo de si solo tienen contratado teléfono fijo o también banda ancha fija.”

Portaleta eta Aquarium arteko eremua zuntz optikoz zeharkatua dago. Bizilagunek salatu dutenez, konexioa etxe atondoetara bideratzea besterik ez da falta. Baina, beste behin ere, administrazio eta eskumen ezberdinen nahasketa dela eta, egin gabe geratu da. Eusko Jaurlaritzak ez du egiteko asmorik, eta Udal Gobernuak, bere aldetik, bere eskumenetik kanpo dagoela adierazi du.

Hala ere, abenduaren 11ko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, Nekane Arzallus Hirigintzako zinegotzi ordezkariak aurreratu zuen Donostiako Udala telefonía operadoreekin hitz egiten ari dela “haiek inguru horretarako irtenbide egoki bat proposatu dezaten”.

Halaber, gaineratu zuen operadoreek konpromisoa hartu dutela gabonak baino lehen proposamen bat aurkezteko, udal teknikariek azter dezaten. Udala, gainera, udal eremuan dauden gainerako lurpeko sareak aztertzen ari dela adierazi zuen, zuntz optikoa igarotzeko dauden sareetako bat partekatzeko aukera egon litekeelakoan. Eta honela amaitu zuen hitzartzea: “Udalaren nahia da telefonia operadoreek neurri egokiak hartzea kaiaren inguruan telekomunikazio zerbitzua kalitatez emango dela bermatzeko”.

Jakin badakigu udal ordezkariak harremanetan daudela Kaiko bizilagunekin. Gaiari buruz aritzeko izandako lehen bilkuran ordezkariak adierazi zieten Kaiko esku-hartzea bigarren fase batean egitea aurreikusia zegoela, eta behin Parte Zaharreko lanak amaituta, hasiak zirela lanekin. Kontua da, azaroaren 29az geroztik bizilagunek zerbitzua etenda dutela. Ondorioz, eta adierazi digutenaren arabera, une hauetan nork bere alternatibak bilatu behar izan ditu teleoperadoreekin (4G, antena parabolikoa...). Bizilagunen hitzetan, “no garantía” egoera batean daude 2024ko apirilera arte; hau da, tarte honetan ezin dute bajarik eman eta kontratatutako zerbitzuan matxuraren bat eduki ezker ez zaie konponduko.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

- 1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuri, Kaiko bizilagunen egoera kontutan hartuta, lehentasunez eta premiaz landu ditzala Kaiko eremuan bizi diren donostiarren etxeetara zuntz optikoaren zerbitzua iristeko lanak.
- 2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Euskal Autonomia Erkidegoko Portu eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legean aurreikusitakoaren arabera Donostiako Portuko Udal Kontseilua sortzeko izapideak azkartzea, eta bien bitartean, administrazio ezberdinen eta Kaiko bizilagunen arteko komunikazioa errazteko bitartekoak sortzea.

Donostian, 2023ko abenduaren 15ean

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia



EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -